



## ALKATE LEHENDAKARIAREN DEKRETUA

**Gaia: 2022ko ekitaldirako udal aurrekontuak. 2021eko ekitaldiko udal aurrekontuen luzapena.**

Araba lurralde historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru-arauaren 50. artikulua arautzen du aurrekontuak luzatzeko erregimena, egoera automatiko gisa, aurrekontu ekitaldia hasten denean ekitaldi horretako aurrekontu orokorrak artean indarrean jarri gabe daudenerako. Artikulu horretan xedatutakoaren ildorik, 2021eko abenduaren 31n indarrean dauden aurrekontuak luzatu beharra dago, salbu eta egun horretarako bukatu beharrekoak diren programa funtzional edo zerbitzuetarako kredituak eta ekitaldi horretan bakarrik jasotzekoak diren berriazko diru-sarrerak.

Indarrean den Aurrekontuak Betetzeko Udal Araudiaren 6. artikuluan xedatutakoari jarraiki, baldin eta ekitaldi bat hasten denean dagozkion aurrekontu orokorrak artean indarrean jarri ez badira, besterik gabe jo behar dira luzatuzat aurreko ekitaldikoak.

**Sarrerren egoera** luzatu egin da, 2022ko urtarrilaren 1.ean indarrean jarriko diren eta udal aurrekontuen proiektuan jaso diren ordenantza fiskal eta prezio publikoen haritik zuzeneko eta zeharkako zergen, tasen eta prezio publikoen bitartez jasotzea espero den sarrerak aintzat harturik luzatu ere. Udalbatzaren 2021eko abenduaren 22ko osoko bilkuraren erabakiaren bitartez onetsi ziren ordenantza fiskal horiek, eta 2021eko abenduaren 29ko AL-HAOn —146 zk.— argitaratu dira. Diru-sarrera horien luzapenean, aurreikusitako erroldaldaketan kalkuluak kontuan hartu dira

IV. kapituluko —Transferentzia arruntak— eta VII. kapituluko —kapital-transferentziak— sarrerei dagokienez, indarrean dauden beste erakunde batzuekiko hitzarmenak hartu dira aintzat, eta azken aurrekontu-ekitaldietan errepikatu diren erakunde publiko eta pribatuen dirulaguntzak eta transferentziak.

V. kapituluan —Ondare-sarrerak—, 2021eko ekitaldiko behin-betiko kreditua luzatuko da.

VI. kapituluari dagokionez —Inbertsio errealak besterentzea—, 2022an gauzatuko diren 2021eko eragiketen ondoriozko diru-sarrerak luzatuko dira. Udalaren lurzoru-ondarearen salmentari dagokionez, 2021eko aurrekontuan ageri ziren eta hainbat arrazoiengatik gauzatu ezin izan diren kontzeptu berei eutsi zaie —2022an gauzatzea espero den zenbatekoa—.

IX. kapituluko diru-sarrerak —Finantza-pasiboak— 2021eko ekitaldiko zenbateko berarekin luzatuko dira, eta inbertsioak finantzatzera bideratuko, Aurrekontuak Betetzeko Udal Araudiaren 6. artikuluan 9. puntuko arauen ildotik.

**Gastuen egoerari** dagokionez, otsailaren 9ko 3/2004 Foru-arauaren 50. artikuluan jasotzen diren lege-aginduak kontuan hartu dira, eta behin betiko kreditua luzatu da, eta ez, aldiz, 2021eko ekitaldian bukatzekoak ziren zerbitzu edo programa funtzionaletarako kredituak, ezta modu eskusiboan ekitaldi horretan jaso diren kredituekin edo bestelako berriazko diru-sarrerekin finantzatuta daudenak ere. Nolanahi ere, 2021eko aurrekontuan onetsitako konpromiso-kredituen 2022ko urteko kopuruan kontuan izan dira, 2022 gauzatzekoak ez direnak izan ezik.



Langile gastuak —gastu egoerako I. kapitulua— 2022ko aurrekontuan kredituari dagokion zenbatekoan luzatuko dira, Giza Baliabideen Sailak emandako kopuruen arabera, Aurrekontuak Betetzeko Udal Araudiaren 6. artikulua 9. puntuko arauen ildotik. Beraz, 156.567.492,61 euroan luzatuko dira urteko behin betiko kredituak.

Gastuen egoerako II. kapitulua, ondasunak eta zerbitzuak erosteko kredituei dagokiena, 151.308.733,97 euroko kopuruan luzatuko da, hau da, 2021eko abenduaren 31ko behin-betiko kreditua, salbu eta, kontratu-aldaketen edo 2022ko kredituan eragina izan dezaketen bestelako faktoreen ondorioz, luzapen-erregimena Gasteizko Udalaren 2022ko zirkunstantzia ekonomiko eta finantzarietara egokitzeko gastu-kredituari aldakuntzak egotz dakizkiokeen partidetan.

Finantza-gastuak —gastu egoerako III. kapitulua— 2022ko aurrekontuan aurreikusitako zenbatekoaren arabera luzatuko dira, finantzaketa-eragiketetan aurrez finkatutako finantza-baldintzak eta partida horietan eragiten duten bestelako faktoreak aintzat hartuta. 1.165.300,00 euroko zenbatekoan luzatzen da.

Gastuen, dirulaguntzen eta transferentzia arrunten egoerako IV. kapituluko gastuetarako kredituak luzatzeko orduan jarraitu den prozedura izan da, oro har, aldian-aldiko edo izaera errepikakorreko dirulaguntza eta transferentzia guztien abenduaren 31ko behin betiko kreditua luzatzea, salbu eta udal sozietate anonimo eta erakunde autonomoen kasuan; izan ere, horietan, administrazio-kontseiluek edo zuzendaritza-kontseiluek egindako aurreikuspenak eta hartutako erabakiak kontuan izan baitira. 48.049.356,55 euroko zenbatekoan luzatzen da.

Gastuen egoerako VI. kapituluko kredituei dagokienez —inbertsio-gastuak—, izaera errepikakorreko partidak bakarrik luzatuko dira, abenduaren 31ko behin-betiko kredituaren zenbatekoan, salbu eta 2022rako konpromiso-kredituetan jasota dauden VI. kapituluko inbertsio-proiektuak, zeinen zenbatekoa konpromiso-kredituan jasotzen dena izango baita. Luzatutako zenbatekoa 27.195.120,19 eurokoa da.

Gastuen egoerako VII. kapituluko kredituak —Kapital-transferentzien gastuak—, hainbat erakunderekin sinatuta dauden —eta indarrean dauden— hitzarmen eta akordioen arabera luzatuko dira, orobat kontuan izanik udal sozietateetako administrazio-kontseiluek onetsitako akordioak eta erakunde autonomoen kudeaketa-aurreikuspenak. Luzatutako zenbatekoa 5.697.651,86 eurokoa da

VIII kapituluan, 2021eko aurrekontuan abenduaren 31an dagoen behin-betiko kreditua luzatuko da, 52.600,00 eurokoa.

IX. kapitulua —Finantza-pasiboen aldakuntza— 2022ko aurrekontuan aurreikusitako zenbatekoaren arabera luzatuko da, mailegu-eragiketetan aurrez finkatutako finantza-baldintzak eta partida horietan eragiten duten bestelako faktoreak aintzat hartuta; guztira, 12.886.064,54 euroko zenbatekoa.

Udalbatzak onetsitako konpromiso-kredituei dagozkien ordainketa-kredituak sartu dira, otsailaren 9ko 3/2004 Foru-arauaren 50.4 artikulua ildotik, zeinen arabera konpromiso-kredituak automatikoki sartuko baitira luzatutako aurrekontuan. Dagokien eranskinean zehazten dira horien zenbatekoak. Nolanahi ere, ez dira luzatu 2021ean bukatu diren inbertsio-proiektuetarako konpromiso-kredituak.

Horrenbestez, aurreko guztiaren ildotik, eta ikusirik Aurrekontuak Betetzeko Udal Araudiko 6. artikuluan —Arabako Toki Erakunde Aurrekontuei buruzko 3/2004 foru arauaren 50. artikulua eta 985/1992 foru arauaren 61. artikulua ildo beretik— xedatutakoa, hauxe erabaki dut:



## DEKRETUA

**LEHENA.**- Gasteizko Udalaren 2021eko ekitaldiko aurrekontu orokorrak luzatzen dira, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izan ditzaten ondorioak, harik eta ekitaldi horretako aurrekontu orokorreari behin betiko onespena eman arte; hain zuzen ere, 1. eranskinean ageri diren diru-sarrera eta gastuen egoeretan adierazten diren kopuruetan luzatzen dira, hasiera bateko zenbatekoa 402.922.319,72 eurokoa delarik gastuen aurrekontuan, eta 407.617.291,80 eurokoa diru-sarreraren aurrekontuan. 2021eko Aurrekontuak Betetzeko Udal Araudia luzatzen da, erabateko eraginak izan ditzan 2022an.

**BIGARRENA.**- Gastuen egoerako sailkapen ekonomikoko I. kapituluko —langile-gastuak— aurrekontu-partidei dagozkien ordainketa-kredituak gehienez 156.567.492,61 euroko kopuruan luzatzen dira, dekretu honen 2. eranskinean ageri den udal sailen arteko banaketa organikoaren arabera.

**HIRUGARRENA.**- Gastuen egoerako sailkapen ekonomikoko II. kapituluko —ondasun eta zerbitzu arruntak erostea— aurrekontu-partidei dagozkien ordainketa-kredituak gehienez 151.308.733,97 euroko kopuruan luzatzen dira, dekretu honen 3. eranskinean ageri den udal sailen arteko banaketa organikoaren arabera.

**LAUGARRENA.**- Gastuen egoerako sailkapen ekonomikoko IV. kapituluko —transferentzia arruntak— aurrekontu-partidei dagozkien ordainketa-kredituak gehienez 48.049.356,55 euroko kopuruan luzatzen dira, dekretu honen 4. eranskinean ageri den udal sailen arteko banaketa organikoaren arabera.

**BOSGARRENA.**- Gastuen egoerako sailkapen ekonomikoko VI. kapituluko —inbertsio errealak— aurrekontu-partidei dagozkien ordainketa-kredituak gehienez 27.195.120,19 euroko kopuruan luzatzen dira, dekretu honen 5. eranskinean ageri den udal sailen arteko banaketa organikoaren arabera.

**SEIGARRENA.**- Gastuen egoerako sailkapen ekonomikoko VII. kapituluko —kapital-transferentziak— aurrekontu-partidei dagozkien ordainketa-kredituak gehienez 5.697.651,86 euroko kopuruan luzatzen dira, dekretu honen 6. eranskinean ageri den udal sailen arteko banaketa organikoaren arabera.

**ZAZPIGARRENA.**- Gastuen egoerako sailkapen ekonomikoko VIII. kapituluko —finantza-aktiboen aldakuntza— aurrekontu-partidei dagozkien ordainketa-kredituak 52.600,00 euroko kopuruan luzatzen dira.

**ZORTZIGARRENA.**- Gastuen egoerako III. kapituluari —Ogasun Sailaren organikoan sartutako finantza-gastuak— dagozkion ordainketa-kredituak gehienez 1.165.300,00 euroko kopuruan luzatzen dira, hori baita 2022ko ekitaldirako aurreikusitako finantza-kargari eta gainerako finantza-gastuei dagokiena. Gastuen egoerako IX. kapituluari —Ogasun Sailaren organikoan sartutako finantza-pasiboen aldakuntza— dagozkion ordainketa-kredituak gehienez 12.886.064,54 euroko kopuruan luzatzen dira, hori baita 2020ko ekitaldirako aurreikusitako mailegu-amortizazioari dagokiona.

**BEDERATZIGARRENA.**- 7. eranskinean zehazten dira 2022ko ekitaldirako eta hurrengoetarako konpromiso-kredituak.

**HAMARGARRENA.**- Baldin eta ekitaldi berrirako aurrekontu orokorrek ez badute jasotzen luzapen-dekretu honen bitartez baimendutako kredituetakoren bat jasotzen, edo kopuru txikiagoarekin jasotzen badute, dena delako kopurua eragindako programa funtzionalaren kontura baliogabetuko da, eta, hori ezinezko bada, udalbatzak erabakiko du behar den doikuntza nola egin.

**HAMAIKAGARRENA.**- Ogasun Saileko zinegotziaren esku uzten da luzapen-dekretu honetan aurreikusten dena behar bezala gauzatzeko beharrezko diren neurriak eta ebaz-



penak oro hartzeko ahalmena, aurrekontu-aplikazioen banaketa barne, adierazten diren gehieneko mugen barruan.

**HAMABIGARRENA.**- Udal erakunde autonomo eta sozietateek luzatu egingo dituzte 2022ko ekitaldiko eragiketa arruntetarako eta kapital-eragiketarako gastu eta sarreren aurrekontuak, udal aurrekontuan luzatzen eta luzapen-dekretu honetan jasotzen diren diru-laguntza arrunt eta kapital-transferentziak tarteko direla.

**HAMAHIRUGARRENA.**- Eman bekie dekretu honen berri udal sail, erakunde eta sozietateei, jakinaren gainean egon daitezten eta estu-estu bete dezaten.

Hala agintzen eta izenpetzen du Gasteizko Udaleko alkate lehendakariak, 2021eko abenduaren 30ean.

**Gorka Urtaran Agirre**  
**Alkate lehendakaria**



## **ERANSKINAK:**

1. Gastu eta sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera.
2. Langile-gastuak, sailez sail.
3. Ondasun eta zerbitzuak erosteko gastuak, sailez sail.
4. Transferentzia arruntak, sailez sail.
5. Inbertsio-gastuak, sailez sail.
6. Kapital-transferentziak, sailez sail.
7. Konpromiso-kredituak.
8. Sarreraren egoera, aurrekontu-aplikazioen arabera.



## 1. ERANSKINA: SARRERA ETA GASTUEN EGOERA

DIRU-SARREREN KAPITULUA	ZENBATEKOA
1.- Zuzeneko zergak	93.257.000,00
2.- Zeharkako zergak	10.272.111,00
3.- Tasa eta prezio publikoak	59.460.882,35
4.- Transferentzia arruntak	216.315.981,03
5.- Ondare-sarrerak	921.000,00
6.- Inbertsioak besterentzea	5.722.317,42
7.- Kapital-transferentziak	10.918.000,00
8.- Finantza-aktiboak	0,00
9.- Finantza-pasiboak	10.750.000,00
<b>DIRU-SARRERAK, GUZTIRA</b>	<b>407.617.291,80</b>

GASTUEN KAPITULUA	ZENBATEKOA
1.- Langile-gastuak	156.567.492,61
2.- Erosketak eta ohiko ond.	151.308.733,97
3.- Finantza-gastuak	1.165.300,00
4.- Transferentzia arruntak	48.049.356,55
5.- Kreditu global	0,00
6.- Inbertsio errealak	27.195.120,19
7.- Kapital-transferentziak	5.697.651,86
8.- Finantza-aktiboak	52.600,00
9.- Finantza-pasiboak	12.886.064,54
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>402.922.319,72</b>

**SUPERABITA** 4.694.972,08



## 2. ERANSKINA: LANGILE-GASTUAK

SAILA	ZENBATEKOA
1 ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK	6.474.644,86
2 LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	6.380.806,77
3 HERRITARREN SEGURTASUNA	34.664.497,75
4 OGASUNA	6.224.313,60
8 EKONOMIA SUSTAPENA, ENPLEGUA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	4.208.649,25
9 GIZA BALIABIDEAK	5.309.201,82
10- 16 UDAL ADMINISTRAZIOA ETA ERALDAKETA DIGITALA	22.260.877,62
11 GIZARTE POLITIKAK, ADINEKOAK ETA HAURRAK	27.102.853,20
13 KONTU-HARTZAIETZA NAGUSIA	549.277,00
15 MUGIKORTASUNA ETA ESPAZIO PUBLIKOA	10.625.946,86
18 PARTAIDETZA, GARDENTASUNA ETA GIZARTE ETXEAK	13.476.613,70
23 KULTURA ETA HEZKUNTZA	12.108.506,50
24 DEPORTE Y SALUD	4.862.111,69
90 Beste.	2.319.192,00
<b>GUZTIRA</b>	<b>156.567.492,61</b>



### 3. ERANSKINA: ONDASUN ETA ZERBITZUAK EROSTEA

SAILA	ZENBATEKOA
1 ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK	3.085.883,29
2 LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	42.840.095,10
3 HERRITARREN SEGURTASUNA	982.767,80
4 OGASUNA	9.255.157,05
8 EKONOMIA SUSTAPENA, ENPLEGUA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	6.195.369,27
9 GIZA BALIABIDEAK	821.161,91
10-16 UDAL ADMINISTRAZIOA ETA ERALDAKETA DIGITALA	23.657.884,27
11 GIZARTE POLITIKAK, ADINEKOAK ETA HAURRAK	32.084.630,88
13 KONTU-HARTZAILETZA NAGUSIA	
15 MUGIKORTASUNA ETA ESPAZIO PUBLIKOA	14.815.389,24
18 PARTAIDETZA, GARDENTASUNA ETA GIZARTE ETXEAK	3.159.532,92
23 HEZKUNTZA ETA KULTURA	6.008.200,00
24 DEPORTE Y SALUD	7.764.544,24
90 Beste	638.118,00
<b>GUZTIRA, ONDASUN ETA ZERBITZUAK EROSTEA</b>	<b>151.308.733,97</b>





#### 4. ERANSKINA: TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

SAILA	ZENBATEKOA
1 ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK	1.080.525,00
2 LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	125.000,00
3 HERRITARREN SEGURTASUNA	
4 OGASUNA	19.623.342,51
8 EKONOMIA SUSTAPENA, ENPLEGUA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	6.425.592,99
9 GIZA BALIABIDEAK	40.462,62
10- 16 UDAL ADMINISTRAZIOA ETA ERALDAKETA DIGITALA	
11 GIZARTE POLITIKAK, ADINEKOAK ETA HAURRAK	15.697.836,18
13 KONTU-HARTZAILETZA NAGUSIA	
15 MUGIKORTASUNA ETA ESPAZIO PUBLIKOA	173.000,00
18 PARTAIDETZA, GARDENTASUNA ETA GIZARTE ETXEAK	304.000,00
23 KULTURA ETA HEZKUNTZA	3.291.192,65
24 DEPORTE Y SALUD	1.288.404,60
90 Beste.	
<b>GUZTIRA, TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b>	<b>48.022.356,55</b>

**5. ERANSKINA: INBERTSIO ERREALAK**

SAILA	ZENBATEKOA
1 ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK	24.000,00
2 LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	8.503.500,00
3 HERRITARREN SEGURTASUNA	448.104,88
4 OGASUNA	892.001,00
8 EKONOMIA SUSTAPENA, ENPLEGUA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	569.324,56
9 GIZA BALIABIDEAK	10.000,00
10-16 UDAL ADMINISTRAZIOA ETA ERALDAKETA DIGITALA	5.711.000,00
11 GIZARTE POLITIKAK, ADINEKOAK ETA HAURRAK	635.000,00
13 KONTU-HARTZAILTZA NAGUSIA	
15 MUGIKORTASUNA ETA ESPAZIO PUBLIKOA	8.075.470,75
18 PARTAIDETZA, GARDENTASUNA ETA GIZARTE ETXEAK	1.710.000,00
23 KULTURA ETA HEZKUNTZA	187.493,00
24 DEPORTE Y SALUD	429.226,00
90 Beste.	
<b>GUZTIRA, INBERTSIO ERREALAK</b>	<b>27.195.120,19</b>



## 6. ERANSKINA: KAPITAL-TRANSFERENTZIAK

SAILA	ZENBATEKOA
1 ALKATETZA ETA ERAKUNDE HARREMANAK	
2 LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA	240.000,00
3 HERRITARREN SEGURTASUNA	
4 OGASUNA	2.070.900,90
8 EKONOMIA SUSTAPENA, ENPLEGUA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	
9 GIZA BALIABIDEAK	
10- 16 UDAL ADMINISTRAZIOA ETA ERALDAKETA DIGITALA	
11 GIZARTE POLITIKAK, ADINEKOAK ETA HAURRAK	
13 KONTU-HARTZAILTZETA NAGUSIA	
15 MUGIKORTASUNA ETA ESPAZIO PUBLIKOA	3.219.550,96
18 PARTAIDETZA, GARDENTASUNA ETA GIZARTE ETXEAK	
23 KULTURA ETA HEZKUNTZA	167.200,00
24 DEPORTE Y SALUD	
90 Beste	
<b>GUZTIRA, KAPITAL-TRANSFERENTZIAK</b>	<b>5.697.651,86</b>



**7. ERANSKINA: KONPROMISO-KREDITUAK (2022ko ordainketa-kredituak zehaztuta)**

KODEA	IZENA	ORDAINKETA-KREDITUAK, 2022	KONPROMISO-KREDITUAK			
			GUZTIRA	2023	2024	2025
0214 9212 62290	PRINCIPAL ANTZOKIA ERABERRITZEA	2.000.000,00		3.000.000,00		
0214 9211 60507	ARAMANGELU ABETXUKO	1.000.000,00		500.000,00		
0214 9211 62226	UDAL ETXEBIZITZAK ERABERRITZEA	200.000,00		200.000,00		
0214 9211 62297	UDAL ERAIKINAK ERABERRITZEA, EB 2012/2017 ZUZENT.	1.000.000,00		1.000.000,00		1.000.000,00
0350 1321 21900	EKIPOAK BERRITZEA ETA EROSTEA	150.000,00		150.000,00		150.000,00
0410 9204 62629	UDAL INBENTARIOAREN SISTEMA INFORMATIKOA	450.000,00		500.000,00		
0410 1513 73310	21 ZABALGUNEARI, ETXEBIZITZAK ERABERRITZEKO	1.000.000,00		1.000.000,00		1.000.000,00
0410 9211 62299	INBERTSIOAK SAN MARTINEN, DBZ SEGURITASUNA	60.000,00		90.000,00		
0826 3411 22611	BABESA: GASTEIZKO TRIATLOIA	125.000,00		125.000,00		
0821 4331 48175	HITZARMENA VIA-REKIN, BIDAIRI-JARDUERA BULTZATZEKO	500.000,00		500.000,00		500.000,00
0910 2210 22734	GIZARTE SEGURANTZA ERREGULARITZEA	300.000,00		300.000,00		300.000,00
1011 9204 62623	E-ADMINISTRAZIOA PLAN ZUZENTZAILEA	330.000,00		250.000,00		200.000,00
1011 9204 62624	IRUZUR FISKALAREN KONTRAKO PLANA	200.000,00		200.000,00		200.000,00
1011 9204 62626	UDALTAINGOAREN SISTEMA INFORMATIKOA	50.000,00		50.000,00		50.000,00
1012 9204 62600	EKIPAMENDU INFORMATIKOA EROSTEA	300.000,00		250.000,00		250.000,00
1012 9204 62604	ONARRIZKO SOFTWAREA EROSTEA	370.000,00		250.000,00		
1012 9204 62620	SEGURITASUN PLANERAKO EKINTZAK	100.000,00		100.000,00		
1012 9204 62627	TRESNA ETA ZERBITZUAK BERRITZEA	550.000,00		550.000,00		
1620 3421 62296	KIROL INSTALAZIOETAKO INBERTSIOAK	1.000.000,00		1.000.000,00		1.000.000,00
1620 9211 62204	ZENTRO ETA LOKALETAKO INBERTSIOAK	620.000,00		620.000,00		620.000,00
1620 9211 62293	UDAL ERAIKINETAKO INBERTSIOAK	600.000,00		557.000,00		
1620 9215 62303	ENERGIAREN KUDEAKETARAKO EKIPOAK BERRITZEA	625.000,00		625.000,00		400.000,00
152002 1533 60198	ESPazio publikoko inbertsioen GIDA-PLANA	2.500.000,00		2.500.000,00		2.500.000,00
152002 1711 64522	SUPERETXADIAK	1.000.000,00		1.000.000,00		
152002 1711 60196	AUZOETAKO ZUHAITZAK KUDEATZEKO PLANA	300.000,00		300.000,00		
152002 4411 71007	SALBURUA-ZABALGANA TRANBIA	2.998.450,00		1.038.450,00		1.500.000,00
1822 1533 60133	GASTEIZ HOBETUZ	1.500.000,00		1.500.000,00		
1822 9241 22698	HERRITAR-KONTSULTAK	25.000,00		25.000,00		
1822 9241 22699	HERRITARREN PARTAIDETZAKO BESTE HAINBAT GASTU	2.500,00		2.500,00		
1822 9241 22732	ZERBITZUAK ESKAINTEZKO KONTRATUAK	150.000,00		137.000,00		
1823 9241 22799	HERRITARREN PARTAIDETZAKO KANPO LANAK	49.000,00		49.000,00		
1822 9242 48014	DIRULAGUNTZA: HERRITARREN PARTAIDETZARAKO PROIEKTUA	24.000,00		24.000,00		
1822 9242 48954	DIRU-LAGUNTZA: AUZO ELKARTEAK	180.000,00		180.000,00		
231203 3341 22635	AZKENA ROCK JAIALDIA	380.000,00		380.000,00		
<b>GUZTIRA</b>		<b>20.638.950,00</b>	<b>32.572.950,00</b>	<b>18.952.950,00</b>	<b>9.720.000,00</b>	<b>3.900.000,00</b>